



MEMORIA HISTORIKOAREN ERREKUPERAZIO PROIEKTUEN ERREALIZAZIORAKO 2017RAKO DIRU-LAGUNTZAK DEITZEN DIRENEKO, MEMORIAREN, BIZIKIDETASUNAREN ETA GIZA ESKUBIDEEN INSTITUTUAREN ZUZENDARIAREN EBAZPEN EGITASMOARI BURUZKO LEGEZKOTASUN-TXOSTENA, ERABAKIKO PROIEKTUARI

55/2017 LT

I – AURREKARIAK. HONAKO TXOSTENAREN EGOKITASUNA.

Eusko Jaurlaritzaren Organismo Autonomo den GOGORA-ren Zuzendariak, hau da, Memoriaren, Bizikidetasunaren eta Giza Eskubideen Institutuaren Zuzendariak, hurrengo dokumentazio nabarmena gehitzen duen erreferentziazko ebazpen ekimenaren gaineko txosten juridikoa egiteko eskaria egin dio Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritzari, 2017ko martxoaren 30 datarekin:

- Memoriaren, Bizikidetasunaren eta Giza Eskubideen Institutuaren (GOGORaren) Zuzendariaren ebazpen proiektua, memoria historikoaren erreperazio proiektuen errealizaziorako 2017rako diru-laguntzak deitzen dituena.
- Aipatutako ebazpenaren kontrol ekonomiko-araumailerako memoria.

Txosten hau oinarritzen da Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen azaroaren 26ko Lehendakariaren 24/2016 Dekretuaren 6.1.h) atalean, eta Herri Administrazio eta Justizia Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen 71/2017 Dekretuaren 14.1 a) atalean.

Posible da seinalatzea, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoa Antolatzeko ekainaren 2ko 7/2016 Legeko 5.2 artikulua ahalbidetzen duela Euskadiko Autonomia-Erkidegoaren Administrazioa adskribituta dauden organismo autonomoetako pertsona titularrek Eusko

Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridiko Nagusia kontsultatu ahal izan dezaten, delako kontsulta edo irizpena beren kompetentziapeko gaiekin harremanetan dagoen edozein kontu juridikoren gainekoa bada eta eskatzearen egokitasuna justifikatuz gero. Eta hori bai eta, oraingoan bezala, administrazio-ebazpen bidezko diru-laguntza deialdien eta laguntzak edo diru-laguntzak baino arautzen ez dituzten ebazpenen kasuan. Non, hasiera batean, legezkotasun txostena nahitaezkoa gertatzen ez den eta sailaren txosten juridikoa baino ez den behar izango, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoaren 144/2017 apirilaren 25eko Dekretuaren 12. artikulua j) letrak dioenari helduz.

Oraingo kasuan, Memoriaren, Bizikidetasunaren eta Giza Eskubideen Institutuaren (GOGORA-ren) Zuzendariak, Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritzari zuzendutako bere idazkian, justifikatzen du aipatutako ekimenaren gaineko legezkotasun-txosten eskaera, ekimena bere eskumenen artean dagoela eta GOGORAK orain berezko aholkularitza juridikorik ez duela esanez.

GOGORA Lehendakaritzara adskribitutako organismo autonomoa da, Lehendakaritzaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko den 70/2017 apirilaren 11ko Dekretuaren 3.3 artikuluan ageri denez. Horrek, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoaren 144/2017 apirilaren 25eko Dekretuaren 12. artikulua j) letrak dioenari helduz, arrunki ekarri behar izango luke beharrezko txosten juridikoa Lehendakaritzaren Idazkaritza Nagusiaren Araubide Juridikoko Zuzendaritzak ematea, aipatutako Lehendakaritzaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko den 70/2017 apirilaren 11ko Dekretuaren 8.c) artikulua arabera.

Hori horrela dela ulertu arren, txostenaren emisioa ez atzeratzeko eta Zuzendaritza honen eskumenekoa den kontsulta-izapidearen bidetik helarazi zaigun neurrian, eta gogo kolaboratzaileak bultzaturik, goian esandako kompetentzia betez honako txostena igortzeari ekiten zaio.

II - LEGEZKOTASUNA.

Ekimen honi gehitzen zaion 2017ko martxoaren 16ko Memorian agerian geratzen denez gero, la, Memoria Historikoaren errekupeazio kontuetan egitasmoak diruz laguntzera zuzendutako diru-laguntza programa hau, lehen, Giza Eskubideen, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiak kudeatzen zuen (azken deialdia egin zuen 2016ko otsailaren 17ko Ebazpen bidez, EHAA edo Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariaren 43. zenbakian agertutakoa, 2016ko martxoaren 3an) eta, beste bi diru laguntza lerroekin batera, arauturik dator memoria historikoaren berreskurapena, bakea, bizikidetzeta eta giza eskubideak jorratzen dituzten proiektuetarako diru-laguntzak arautzeko den irailaren 24ko 415/2013 Dekretu bidez (EHAAREN 186, zenbakia, 2013-9-30koa).

GOGORA Institutuaren oraingo ekimenak, programa bera bezala identifikatu arren, ez du esaten aipatutako 415/2013 Dekretuan edo besteren baten oinarritzen denik.

Orain arte, programaren lerro orokor eta nagusiak ezartzen dituen arau orokor erregulatuazaleetan oinarritu egiten zen deialdia eta, geroago, urteroko izaera duten laguntzak aldi baterako erabakiaren bidez deitu egiten ziren.

Hori dela eta gure aholkua da justifikatu behar izango litzatekeela aipaturiko indarreko arau orokorra jarraituz egiten dela ere oraingo deialdia, gaurko hau Dekretu hartan araututako programa bera bada, espresuki aitortzen den bezala. Eta hori nahiz eta, orain, deialdi-egilea eta laguntzetako kudeatzailea GOGORA bezala Organismo autonomoa izan, eta nahiz eta Organismo autonomoetako Zuzendarien ahalmena izan laguntzak ematea, eta hartarako arauak ematea ere euren eskumen-eremuan egon (azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuak onartzen duen Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 51.2 artikulua arabera).

Eskumen horrekin harremanetan, informatzen dugun ebazpenaren testuak aipatu egiten du Institutuaren sorrerako, azaroaren 27ko 4/2014 Legea, eta baita ere indarrean dagoela Institutuaren Diru-Laguntzetarako 2017-2020 Plan Estrategikoa, zeina Diru-Laguntzetarako Lege Orokorraren 8.1 artikuluari jarraituz derrigorrezkoa den.

Ebazpenaren oinarri juridiko osoa aipatu behar izateaz gain, erabakiko atal konkretuei dagokionez, ulertzen dugu ez dela egokia, diru-laguntzaren onespenean, eskatzaileak aurkeztutako proiektuko aurrekontuaren ordez Administrazioak berak ordezkotako aurrekontu bate egin ahal izatea, ebazpenaren 6.2 artikulua seinalatzen duen bezala.

Prozeduraren ebazpenari buruz ari den erabaki egitasmo honen 15.2 artikuluko erredakzioa ere berregin behar izango litzateke, gora jotzeko administrazio-errekurtsoa hierarkikoki goikoa den administrazio-organoaren aurrean soilik aurkez baitaiteke, eta ez, informatzen dugun testuan esaten denez, organo igorle beraren aurrean.

Aurrekoa, halaber, Bigarren Azken Xedapenean ezarritakoarentzako ere aplikatu behar da, deialdi-erabakiaren kontrako gora jotzeko administrazio-errekurtsoari buruz hitz egiten duen neurrian.

Hau nire txostena, bi mila eta hamazazpiko maiatzaren hamarrean Vitoria-Gasteizen emana eta Zuzenbidean hobeto oinarritutako beste edozeinen mende jartzen dudana.